



Irudibidez



Asimetria



- Zer moduz euskaltegian?
- Primeran. Jendea oso jatorra da eta langiroa... ezin hobea.
- Honez gero, ondo moldatuko zara euskaraz, ezta?
- Beno... Ulertu ia dena ulertzen dut, baina hitz egitekoan...

Horixe bera esango dute beren kabuz ikasten ari diren helduek; baita euskara barra-barra egiten den lekuetan murgilduta ikasten ari direnek ere. «Ulertu bai ... baina hitz egin ...» Betiko leloa, euskaldunberri askoren kexa eta kezka.

* * *

Ikasleak entzun eta irakurtzen duena, inputa alegia, poliki baina etengabe ari da haren burmuinean forma hartzen. Hots-multzo hutsa zitekeena errealitate esanguratsua bihurtzen da. Hizkuntz estimuluak formarik gabeko errealitate nahasi izatetik esaldi ulergarri izatera iristen dira ikaslearen baitan.

* * *

Dena dela, ulermenaren alorrean gertatzen dena eta ekoizpenarenean gertatzen dena ez dira elkarren parekoak. Outputa, ikasleak idazten eta esaten duena, ez da ulertzen den guztiaren ispilu. Outputa murriztagoa da eta ez hain aberatsa. Burmuineko «forma» batzuk ez dira inoiz kanporatuko. Beste batzuk, berriz, oso gu-

txitan erabiliĳo dira, eta egoera berezitan beti ere. Gainera, lehenengo urratsak ematen hasten denean, ikaslearen outputa ez-osatua izango da eta ekoiztutako formek hutsuneak izango dituzte.

* * *

Beti izango da ulermena eta ekoizpenaren artean asimetria edo desoreka hori. Baita norberaren ama-hizkuntzan ere. Asimetria aldatu eta gutxiagotzen joango da ikasiaren poderioz; baina gutxi batzuen doaia izango da simetria oso-osora iristea, iristerik egotekotan.

* * *

Ekoizteko gaitasuna baino lehenago garatzen da ulermena. Eta ez da harritzekoa. Ekoiztea korapilotsuagoa da ulertzea baino. Berez sortuko den emaitza. Komeni ote da, beraz, ikaslea hitz egitera behartzea? Prest dagoen arte ez, behintzat.

Joanba Bergara